




Bilutzarria

Laburpena

Ponentzien
laburpena
eta proposaturiko
ebazpenak



2000 URTERAKO BIDEAN: KOIUNTURA POLITIKO- EKONOMIKOAREN GAKOAK

NAZIOARTEAN

*Bederatzigarren hamarkada honen ezaugarri nagusietako bat, mundializazio prozesu izenekoari dagoz-
kion kontraesanen bilakaera da.

*Neoliberalismoa agertzen da mundializazio proiektuaren eta Nazioarteko Ordenu Berria ezarri nahi du-
ten sektore hegemonikoen euskarritzat.

*Politika ekonomiko neoliberalak bultzatutako kapitalen metaketari eragozpen nagusi bilakatu zaio Ongi-
zate Egoera: honen kontrako eraso sistematikoa ugaldtu da, ondorioz.

*Ahalbide teknologikoen eta Herrien arteko elkartasunezko garapen demokratikoak eskatzen dute sub-
irautza politiko eta ekonomiko ez uztea gorpuzazio transnazionalen edo nazioarteko botere-zentruen es-
kuetan. Aitzitik ordea, nor bere garapen-eredua antolatuta behar du, elkarlan eta elkartasunezko irizpidez.

*Europaren eraikuntza, martxan doan mundializazio ekonomikoari dago loturik eta, gainera, prozesu ho-
nek sortarazitako kontraesan eta segurantziaz ezak trabaturik.

*Sozialdemokraziak orohar porrot egin du, Europa eraikitze altematiba sozial gisa. Europako langileak
ez ditu ordezkaperen eta partaidetzazko eskubiderik funtsezkoenak ere.

*Europako Herriei, alor politiko eta ekonomikoan zor zaiena aitortu behar zaie eta Europaren Eraikuntza-
ren eragile jokatu behar dute.

EBAZPENAK

*Mundializazio ekonomikoak eta Nazioarteko Ordenu Berria izenekoak mundu zabalean sortarazitako di-
tuzten ondorio kaltegarriak izango ditu bereizgarri Kongresu honek jorratzen duen ziklo politiko-ekono-
mikoak. Nazioarte eta ekonomia alorretako harremanetan parametro berriak bilatzeko xedez, pobrezia,
desmaila sozial, ingurugiroaren suntsiketa eta antzekoak sortarazten dituen makineria horri aurre egiteko
mugimendu sindikalak aurrera daraman borroka da XXI. mendearen atari honetan sindikalismoak daukan
erronka nagusietako bat. Euskal Nazioaren Eraikuntzaren aldeko borrokan, indarrean dagoen eredu-
a auzitan jartzeko ahaleginak egingo ditu LABek, mundu zabalean demokrazia politiko eta ekonomiko berri-
ri ateak zabalduz.

*1996 urtean Maastrichteko Itunari eman beharreko ikuskapenari ongi letorkioke europar sindikalismoa-
ren erasoaldi ideologiko eta mobilizatzailearen laguntza, Itun horrek berak sendotu nahi duen Europaren
eraikuntzaren ereduaren aurka. Indar sozial aurrerakoiek —LAB, besteren artean— Maastrichteko Euro-
pari alternatibazko erantzuna eman behar diogu, estatuak eta multinazionalak osatutako Europa hori bal-
dintzapean jarriko duten elkarlaguntzak eta mobilizazioak sortuz eta zabalduz.

*Gaurregun dauden Nazioarteko Erakunde Sindikaletan afiliatzerik ez dio planteatu LABek bere buruari;
aitzitik ordea, Txostenean adierazitako parametroetatik, nazioarteko harreman ireki eta anitzak mantendu
eta suspertuko ditu.

ESTATU ESPAINOLEAN

*Monarkia eta Konstituzio espainola ezartzea izan dira sektore mediatikoen estrukturalki baldintzatutako
trantsizioaren euskarri politikoak.

*Esparru polizial, militar eta ekonomikoetan azken urte hauetan azaltzen ari diren eskandalu eta txantaiak
ELKARREKIN IRAUTE horren emaitzak dira.

*Europar integratzeko ereduak, nazioarte mailan "demokrazia espainolari" itxurazko legezkotasuna ema-
teko beharrak baldintzaturik egon da, errealitate plurinazionalaren eta herri-eskakizunen lepotik.

*Europar sartzeko eta Maastrichteko Ituna zirela-eta, herri-plebisizitorik egin ez izana da prozesu honen
ahuleziaren frogak eta, gainera, Estatu espainolaren demokrazi hutsuneen berri ematen du.

*Estatuaren finkatze demokratikoan eta gizartearen aldakuntza gorpuztean "felipismoak" jasan duen po-

rrotak berekin eraman ditu CCOO eta UGT, geroz eta nabarmenagoak diren ahulezia eta noraezean geratu direlarik.

*PSOEm politikako ekonomiko neoliberala dela-eta, CCOO eta UGTk erakutsi duten jarrera —aldeotasun edo, areago, lagunkeriazkoa— larritu egin da alderdi horren ahulezia politikoarekin batera.

*Baskongadetan eta Nafarroan sukurtsalak izan edo ez izan, euskal sindikalismoaren eta langileriaren ekinbide eta protagonismoaren kontrako proiektu sindikal estatalista eta uniformatzailea ezarri nahi dute CCOO eta UGTk.

EBAZPENAK

*Estatu espainolean, demokraziarako trantsizioak porrot egin du eta, honela, geldirik gaude: estatu-ereduaren eta demokraziaren berpiztearen (instituzioen jarduera demokratikoan eta herri-gogoaren artikulazioaren baitan komunikabideen eragina suntsitzea) krisiak kontsentsu konstituzional berri bat bilatu behar dute, honela demokraziarako bigarren trantsizioari hasiera emango zaiolarik.

Konstituzio espainola eraberritzea, Herrien Autodeterminaziorako Eskubidea aitortzeaz diharduen 2. artikulua suntsituz (Estatu espainoleko Herrien Subirautza aitortzea) eta lurraldeen bestelako antolakuntza eratzea dira funtsezko ardatzak, demokraziarako egiazko bidean aurrerapausuak ematen hasteko.

*CCOO eta UGTk sindikalismo abertzalearen kontra hasitako neozentralismozko eta enfrentamenduzko estrategiaren aurrean, LABek Estatu espainoleko Herrien (Euskadi, Kanariak, Galizia, e.a.) sindikalismo nazionalista iraunkortasunez koordinatzearen alde jardungo du. Suntsitu nahi dugun marko juridiko eta politiko-ekonomikoari erantzunez, esandako koordinazioak ateak zabaldu beharko litzioke ekinbide sindikalak elkarlotzeari: honela, osotasuneko edo berarizko problematiketan langileriaren jarrerak defendatuz, bi sindikatu espainol horien ereduari erantzuna eman ahal izango litzaioke.

EUSKAL HERRIAN

a) Gogoeta orokorra

*Trantsiziozko 20 urte hauek ez dute ekarri Hego Euskal Herrira bakerik, ez demokraziarik.

*Monarkia eta Konstituzioaren edukinak euskaldunoi eskubide demokratikoak lortzea galarazten digute, egoera ekonomiko eta sozialaren baldintzapean utzita.

*Euskal Herriaren eskubide demokratikoen aldeko erreibindikazioa neutralizatzeko asmoz, Baskongatuetan eta Nafarroan zabaldu den estatutu prozesuak porrot egin du helburu horretan. Estatuaren estrategia —autonomia eta zapalkuntza elkarrekin nahastea, alegia— ez da gai izan hondoko gatazka nazionalari irtenbiderik eskaintzeko.

*Estatutuak eta Amejoramentuak erakutsi dute Euskal Herriarentzat Estatu espainolak zeukan strategiaren izaera: haren helburu nagusia, nazionalismo espainolaren gune politiko, ekonomiko eta kulturalen euskal naziotasuna suntsitzea besterik ez zen.

*PNVk eta EAK Espainiako Konstituzio eta Gasteizko Estatutuaren alde egin duten apustuak Euskal Nazioaren Eraikuntzarako bidean estrategiarik antolatzea eragotzi dute.

*Disidentzia abertzalearen kontrako funtsezko arma bihurtu da komunikazioa. Estatuak eta eginkizun hau komunikazio alorrean asumitzen dituztenek abertzaletasunaren estrategia baldintzapean ipini nahi dute, gizarte osoari informazio asko ukatuz eta belaunaldi berriei memoria historikoa ezkutatuz.

b) Nazionalismo erregionalista

*Trantsizioaren hasieran Estatuarekin itundutako oinarri politikoetatik, euskal proiektu nazionalaren aitzindari izateko saiakeran porrot egin du nazionalismo erregionalistak. Amejoramentu edo Estatutuaren alde egin duen apustuak tranpa bateraino eraman du: gure produkzio-ehunaren, gure enplegu mailaren eta babes sozialaren hondamendia geldiarazteko gauza izan ez diren konpromezu instituzionalak bakarrik "lortu" dituzte espainolismotik.

*Ezker Abertzalearen kontrako eraso eta bazterkuntza politikoa eta zapalkuntza izan da PNVren zuzendaritzak ordaindutako prezioa, Gobernu Zentralarekin eta honen sukurtsalarekin (PSE-EE) egindako itunengatik. Bere strategiari jarraiki, PNVk Ertzantza bihurtu du disidentzia abertzaleari erantzuteko lanabes, Estatu espainolarekiko itun eta akordioen ondorioz.

*Ongizatearen erregionalismoaren teoria finkatzeko ezintasunak eta Ezker Abertzalea neutralizatzeko proiektuan izaniko porrotak ildo politikoa krisian utzi dio PNVri. Kinka larrian dago orain alderdia.

*Ziklo politiko bati amaiera ematen ari zaio. Baliteke gu bidagurutze historikoan egotea, beraz, eta orain-

goan berriz ere PNVren jarrera erabakiorra izango da Estatu espainolarekiko enfrontamenduari eusteko edo soluzio politikoa bultzatzeko.

*Hego Euskal Herriko erregionalismoaren bigaren euskarria UPN-CDN da. Alli-ren "irekitasunak" nafar erregionalismoa suspertu egin dezake ostera, gizartean aukera bikoitza ezarriz.

*Hegoaldeko euskal nazioaren errealitatea hausteko Estatu espainolak planteatu duen probintzibakarreko autonomiaren bideragarritasunik ezari buruzko eztabaida politikoari kontrajartzen zaio Nafarroako dinamika soziala.

c) Ezker Abertzalea

*Ezker Abertzalea da, gaurkoz, Herri honen hauspo politikoa, Nazioaren Eraikuntzaren estrategian.

*Ezker Abertzalearen borroka Estatuaren proiektu erregionalista eta PNV-UPN alderdietako zuzendaritza kolokan jarri ditu, eta Hego Euskal Herriarentzako bake eta demokrazia erdiesteko egiazko aukera izango litzatekeen fase politiko berri baten oinarriak ezartzeko baldintzak sortu ditu.

*Ezker Abertzaleak berriro ere hartu dio buelta prozesuari eta, 92an planteatutako apustu okerraren eraginez geroztik, Algerreko prozesuaren ondorioz sortutako desgaste politiko eta psikologikoaren faseari amaiera eman dio.

*Jarrera oldartzaileetatik, independentziazko proiektuaren aldeotasunean agertu behar den bidezko koherentzia teoriko-praktikoaz jantzita, oinarritzko eginkizun politiko-sozialari berriro ekiteak ateak zabaltzen dizkigu geroa ikusteko, hau da, oraintxe hasten ari den ziklo politikoan Ezker Abertzaleak protagonismo eta inizatiba handiagoak hartuko ditu.

*Igazko apirilean ETAk egindako eskaintza politikoak (LABek zeharo positibotzat jo duena) eskenatoki berria eskaintzen du istiluari amaiera emateko.

*Eraikuntza Nazionalerako indar-metaketa ez zaigu hurbilduko gure eskubide demokratikoak berreskuratze bidean urrats garrantzitsuak emanez bakarrik, baizik eta gure alternatiba politiko, sozial, ekonomikoak euskal gizartean behar bezala zabalduz, hau da Euskal Nazioa eraikitzea egunero, jarduketara politiko-sozialeko alor guztietan egin beharreko lana dugu.

d) ELA-LAB dokumentua

*95eko Aberri Eguneko ELA-LAB Dokumentua izan da azken urteotako faktore politikoetatik nabarietako bat. Ekimen hau erreferentzia nagusi bihurtzen da indar politiko abertzaleentzat, istiluari soluzioa emango bazaio, Estatuaren aurrean eman beharreko pausuak adierazteko.

*Dokumentu honek estatutu-zikloaren hondamena eta Nazioa Eraikitzekeo estrategia antolatzeko beharra azaltzen du zehatz-mehatz, gatazkari garantiazko soluziobideak eman dakizkion.

*Hego Euskal Herriarentzat bakea eta demokrazia erdiestea Estatu espainolaren esku dago, bistan da, baina egoera berri horren zutabe izango den akordioa aztertu eta hartzeko, indar abertzaleen baterako ekinbide politikoa ezinbestekoa izango da.

EBAZPENAK

*Euskal gizartearen erreibindikazio politiko, ekonomiko eta sozialei erantzuna emateko lanabes diren aldetik, Estatuak eta Amejoramentuak porrot egin dute. Era berean, nazionalismo erregionalistaren strategiaren ondorioz, estatutualdi politiko hau ez da gai izan euskal herritar guztientzat OINARRIZKO LURZORU DEMOKRATIKOA jartzeko. Eskubide demokratikoak ukatuak daude oraindik eta Gobernu Zentralearen aginduetarako gestioa, gure Herriaren antolakuntza politiko, ekonomiko eta soziala eta demokraziazko jarduera eragozten duten oztopo instituzionalek galerez dago. Hau da, Euskal Herriaren Subirautzarik ez dago eta Estatu espainolaren jokaera agintzaile eta menderatzaileak baldintzatuta dago hemengo jardura demokratikoa.

Hego Euskal Herria eta Estatu espainolaren arteko beste AKORDIO POLITIKO bat eratu beharra dago. Euskal herritarren erabakia galarazita duten hipotekak suntsitzean oinarria izango duen AKORDIO horrek, dinamikoki eta euskal gizarteak adierazitako borondatearen arabera, bestelako marko juridiko berria antolatuko du. Hau da, sorrera prozesua baino gehiago, Euskal Herriaren subirautza eta eskubide demokratikoak aitortuta, herriaren iritziaren arabera, independentzi aukera egiazko ahalmen politikoaz jantziko duen Estatuarekiko harremanaldia dinamikoki sor dadin nahi dugu.

*Ezker Abertzaleko osakide den heinean, Euskal Nazioa Eraikitzearen aldeko konpromezua berrindartzen du LABek, Euskal Herria politikoki, ekonomikoki eta sozialki gara dadin baldintzak sortzen lagunduko duelarik. XXI. MENDEAREN ATARIAN ETA NAZIOARTE MAILAN, EUSKADI NAZIO DEMOKRATIKOTZAT

kokatzen lagunduko diguten espektatiba sozialak eta ekimenak bultzatu behar ditu LABek fronte guztietan (politiko-instituzionalean, ekonomikoan, sozio-laboralean, euskara edota intsumisio alorrean, e.a.). Justiziaz eta elkartasunez, Euskal Nazioaren Eraikuntzaren eragile nagusia langileria eta indar sozialek izan behar dute eta, honek daraman guztia bereganatu behar du gure Sindikatuak, teoria eta koherentziazko praktikan.

EUSKAL LANGILERIA ETA TESTUINGURU SINDIKALA

*Euskal langileriarengan eragina duten faktoreek, nazioarte mailan sistema kapitalistak izan dezakeen bilakaerari lotuta daude.

*Korrante neoliberalak, langileriaren erantzunari kaltegarri zaizkion baloreak jaurtitzen ditu. Lehiakortasuna eta bazterketa bultzatzen den bitartean, elkartasuna eskatzen da. Miserian edo segurantzirik ezean bizi diren hamaika langileren zoritxarra ekarri duten lehiakortasuna eta merkaturia goretzi egiten dira. Natur baliabideak suntsitu eta ekologiar eraso egiten zaion bitartean, "modernotasuna", teknologiaren bilakaera eta antzekoak aldarrikatzen dira. Gazteriaren eta langileriaren erantzuna hausten duten norberekeria, lehiakortasun eta intsolidaritatez jardutera behartzeko, mito sozialak sortzen dira. Honek guztiak langileriaren klase kontzientzia eta erantzuteko gaitasuna murriztu egin du.

*Haustura nozitzen ari da langileria, bere erantzuna baldintzapean dagoela: langabetuak, prekarietatea, autonomoak, etab.

*Produktzio-bitarteak dituzten langileen proletarizazioa azkartu da (baserritarrak, autonomoak, dendariak, e.a.), sistema kapitalistaren ekinbide politiko-ekonomikoaren ondorioz.

*Sindikalismoa ez da gai izan kapitalismoak ezartzen dizkigun koordenada hauei erantzunik emateko. Noragabe honetan, erreferente politiko-ekonomikoen krisiak eta bide alternatiboen ahuleziak izan dute eragina.

*Gazteria eta sistemako sektorerik zigortuenak sindikalismotik urundu egin dira, honek ez baitu egungo fase historikoari egokitutako estrategiarik eskaintzen.

*Estatuarekiko menpekotasun politikoaren agerpen gisa, hein handi batean, industriaren suntsiketak gure Herriaren ekonomiaren egitura arras aldatu du, langileriaren osakera eta bereizgarriengan ere eragin nabarmena izanik.

*Euskal sindikalismoak ideologiatik gabeturiko ekinbidea eraman du, gertatu izan diren aldakin politiko-ekonomikoetatik kanpo, sistemaren joeren mesedetan eta atzerapen ideologiko galanta sortarazita.

*Euskal langileriaren mugimenduan izaniko partaidetzari eman dion erantzunetik, LABek horrelako korranteentzat eustorma gisa jokatu du, euskal langileria dagoen egoerara bere esku hartzea egokitzeko parada hobean dagoela.

*Krisi ekonomikoari eta langileriaren desantolakuntzaren eraginei ez die Euskal Mugimendu Sindikalak behar bezalako erantzunik eman.

*Gure sindikatuaren ordezkariak gora egitea eta ELA eta LABek ekinbide sindikalean bategitea izan dira testuinguru sindikaleko elementu nabarmenenak.

*Nazioa eraikitzekeko strategiaren barnean, gizartea aldatzearen alde egin dugun apustuak, LABek sindikatuartearen daukan harremanaren mailaren berri zehazki adierazten du.

LEHEN EBAZPENA

*LABek ekinbide sindikala egokitu behar du, langileriaren osakera heterogenoari eta kapital-lan enfrontamenduan eragina duten aldakin berriei erantzuna eman ahal izateko. Aurreko Kongresuan emaniko lehen urratsei (Gazteak, Langabetuak, Emakumeak, e.a.) jarraiera eman eta LABen ekinbide sindikal eta sozio-politikoan integratu behar dira. Horretarako, lan-areak berriak eratu eta egitura konfederatuetan txertatu behar dira.

*Sindikatuak daukan izaera eraldatzaileak, sozialki zigortuenak izan diren sektoreengan ekinbide sindikala lehenetsunez garatzera eraman behar gaitu, erakundearen eskuhartzean. Sistemak sortarazten duen errealitate sozialetik kanpo, enplegua duten eta sektore egonkorretan oinarritutako ekinbide sindikalak, LABen ezaugarri eta helburuekin talka egingo luke, aurrez aurre.

*LABen ezaugarri soziopolitikoak dira geroz eta indar handiago duten nortasun-adierazleak, sindikalismoaren baitan. Sistema kapitalistaren bilakaerak eta honengan eragina duten aldakin berriek, ekinbide sindikalean barrena norabide horretan joatea ezinbesteko bihurtzen dute.

*LABek bere ezaugarri soziopolitikoak indartu behar ditu ekinbide sindikal osoan, erreibindikazio politiko hutsetara (autodeterminazioa, presoak, intsumisioa, e.a.) ez murriztearren. Eskuhartze sozio-politikoak eredu politiko-ekonomiko bati eman behar dio erantzuna eta, era berean, Euskal Nazioaren Eraikuntzara zuzendu behar da.

*LABen lehentasunezko helburua ELArekin dauzkan harreman sindikalak sakontzea izango da, bi erakundeen artean orainarte hartutako akordioen ezaugarri izan diren gogoeta eta ekinbide sindikaleko koordenadek bere horretan irauten duten neurrian. Lan-Harremanetarako Euskal Gunea eta Euskal Gune Sozioekonomikoaren garapena, alde ekonomiko eta sozialetik Nazioaren Eraikuntza edukinez jazteari dagokionean, funtsezko erronka dugu euskal langile guztioi helburu positiboa ikusten laguntzen gaituelako.

*Ipar Euskal Herrian sindikatua antolatzeko beharra dagoela onartzen du LABek. Helburu honekin, eztabaida eragiteari funtsezkoa deritzogu, bertako langileriak estrategia egokia bidera dezan, Euskal Herriko lurralde honetan maila politiko eta sindikalean dagoen errealitatea eta testuinguru berezia kontutan izanik.

*CCOO erakunderantz ekinbide sindikala zabaltzeko ahaleginak egingo ditu LABek, erakunde estatal horrek euskal errealitate nazionala onartzen duen eta, ondorioz, Madrilko zuzendaritzaren aginduz, sasi-elkartasunezko kontzeptuetatik eta ekinbide sozioekonomiko eta laboraleko joera zentralista eta harmonizatzaileetatik urruntzen den neurrian. Joera horiek, euskal naziotasunaren ukatzaile eta espainolismo intolerantearen eramale direlako.

*Zuzendaritza Nazional berriak, Ezker Sindikaleko beste sektore batzuegana hurbildu beharko du, Ezker Abertzalearen esparruko ekinbide sindikal eta soziopolitikoko lanabes bakarra den heinean, LAB indartu eta berarekin bat egin dezaten. Eraldatzen jarraitu behar dugun errealitatean esku hartu ahal izateko, indarrak eta eraginkortasuna metatzeari begira, prozesu-horri egundoko garrantzia ematen diogu.

EUSKAL NAZIOA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN BARNEAN GIZARTEA ALDATZEA

"LAB klaseko sindikatu abertzale bezala dago egituratuta, aldakuntza politiko-sozialetan aurrera egiteko helburuz, langileen antolamendu eta lantresna gisa, balore demokratikoak eta justizia soziala erabat garrantzitu izango dituen Euskadi Independiente eta Sozialistara iristeko bidean".

Euskal sindikalismoa eta askatasun demokratikoak

*Askatasun demokratikoak lortzeko prozesuan, bere buruaren protagonismoa erreibindikatu izan du Langile Mugimenduak historikoki.

*ELAk, urtetan zehar, gaurko Euskadi-Estatu espainol harremanetako markoaren barnean ekinbide sindikal abertzalea eraiki nahi izan du, askatasun demokratikoen lorpenean sindikalismoak hartu behar duen protagonismoa itzaltzen zuen apolitizismoaren mesedetan.

*Azken urte hauetan LABek eta ELAk hasitako ekinbide sindikalerako batasuna eskarmentu positiboa izan da, sindikalismo abertzalearen ekinbidearen susperraldi estrategikoa gertatuko bada.

*ELA-LAB Dokumentua hausnarketa egin eta ekinbide sozio-politikoan jarduteko oinarria da, Euskal Herriari zor zaizkion eskubide demokratikoak berreskuratzeko bidean, sindikalismo abertzaleak eta langileriak hartu beharko duten protagonismoa indartzeko.

*Istilu politikoari soluzioa eman dakion, Estatu espainolarekin negoziatzeko presio soziala azkartu behar dugu langileok.

EBAZPENAK

*Askatasun demokratikoen aldeko borrokan euskal sindikalismoaren protagonismo aktiboa erreibindikatzen du LABek; horretarako, Euskal Herria baketzeko eta demokratizatzeke borrokan dabiltzan langileen

zuzeneko jarduera berpizteko ekimenak jaurtiko ditu. Honela, ELA-LAB Dokumentua euskal eskenatokiko erreferente garrantzitsua ezezik, sindikalismoak asumitu behar duen protagonismoa suspertzeko lanabesa ere bada.

*Ajuria Enea eta Iruñeako Itunen jokamoldeari jarraikiz, erakunde politiko, sozial eta sindikal batzuen aurka eratu eta aplikatzen diren politikak —diskriminazioa, bazterkuntza, intoxikazioa, e.a.— desagertzea ezinbestekoa da LABen iritziz, harreman politiko-sozialak eratzeko bidean, bestelako oinarriak sor ditzagun.

LAN-HARREMANETAKO ETA BABESPEN SOZIALEKO EUSKAL GUNEA.

*Euskal gizartearen sektorerik zigortuenak eta langileria asebeteko duen alderdi ekonomiko eta sozio-laborala baztertuta ezin uler daiteke nazio eraikuntzaren prozesu hau.

*LHEG ez da, beraz, kontzeptu abstraktua, langileriaren premia, kezka eta helburuekin zuzenki lotutako xedea baizik.

*Lan-erreforma honekin, lan-harremanen garai berri baten aurrean gara: sekula baino garrantzi handiagoa dauka orain Lan Harremanetarako Euskal Gunea erreibindikatzek.

*Lan-harremanen alderdirik estruktural eta funtsezkoenak, gaurregun, Estatu espainolaren lege-politikaren uztarpean daude.

*Negoziazio kolektiboa lan-harremanen antolamenduko funtsezko lanabesa denik baztertu gabe, "abstentzio legislatiboan" oinarria daukan sistemaren aurka dago LAB, sistema honen arabera, lan-harremanen zuzeneko arauketan instituzioak abstenitzen direlako.

*LHEG lortzearen Estatutu-bidetik egindako porrota ikusita, erreibindikazio hau sakoneko enfrentamendu politikoaren koordinadetan kokatu beharra dago, hau da Euskadi eta Estatu espainola aurrez aurreko enfrentamenduan.

*LHEG Estatu espainolari bakarrik dagokion eskuduntza batengan eragina daukan heinean, bakarrik gorputzu ahal izango da Euskal Subirautza Nazionalaren aitortzea ardatza daukan marko juridiko-politikoan.

*Estatua hasia da INEM suntsitzen, aldi baterako lan-enpresak eta kolokazio agentzia pribatuak legeztatzearen bidez: honela, lan-merkatuan beharrezkoa den bitartekaritza publikoa desagertu egiten da.

*Lanbide Heziketa Jarraia sustatzeko politika, lanpostuak mantentzeko eta, bidebategi, produkzio-sistemaren geroaldia segurtatzeko enplegu-politikaren ardatz nagusietako bat da.

*Azken urteotan, interes batzuen aldeko irudi manipulatuak nagusitzen ari da gizartean Gizarte Segurantzaren porrot ekonomikoari dagokionean.

*LABek ezinbestekotzat jotzen du onuradunei duintasuneko prestazioak garantizatuko dizkien Euskal Sistema Publikoa garatu ahal izateko, ERABAKITZEKO AHALMENA izango duen Gizarte Segurantzako Euskal Institutua sortzea.

*LABek duen helburu nagusietako bat, eskuhartze instituzionalerako gune berriak zabaltzea da, Diputazio eta Udalen esparruan bereziki.

EBAZPENAK

*Lan-erreformari eman beharreko erantzunak geure ekinbide sindikalaren funtsezko zutabea izan behar du. Botere sindikaleko, erreferentzialtasun sindikaleko guneak irabazi behar ditu LABek, prekaritatearen (BLE = ETT, aparteko lanorduak, kontratazio mota askotatik sortutako lan-baldintzak, e.a.) kontrako ekinbide koherente eta osotasunezkoaren ondorioz, nego-ziazio kolektiboaren eta eguneroko eskuhartzearen tes-tuinguruan.

Gizartearen sektorerik zigortuenen aurrean sindikalismoak —LABek bereziki— erdietsi behar duen erreferentzialtasuna kutsatzen duten inertziak eta jokamoldeak HAUTSI behar ditugu, kosta ahala kosta, lan-erreforma eta egoera sozio-ekonomikoaren erantzunez praktikan jarriko dugun ekinbide sindikalaren koherenteziaz.

*Euskal langileriaren interesak defendatuko dituen sindikalismoak eskuhartze eraginkorra izan dezan, beharrezkoa den Lan-harremanetarako eta Babespen Sozialeko Euskal Gunearen egituraketarako bidea ixten digu egungo marko juridikoak. Beraz, ekinbide sindikalaren faktore iraunkorra da gai laboral eta sozialetan eskuduntza legislatiboak eskatzea: honetan jardun-ahala presio-mailak ere progresiboak izango dira. Otsailaren 19a ezin gera daiteke gune historikotzat bakarrik: Estatu espainol eta instituzio autonomikoen jarreraren aurkako eraso areagotu egin behar dugu.

*Negoziazio kolektiboa ezin bihur daiteke LHEG bat lortzeko bide bakarra, maila legislatiboan euskal langileoi Madrilek ezartzen dizkigun neurri estrukturaleri erantzuteko gai ez izateagatik. Horren gainean lan-harremanetarako euskal gunerantz abiatzeko estrategia egiteko saiakerak iruzur teorikoa eta, ikusi den bezala, porrot praktikoa izan dira.

*Finantza baliabideak bildu, gestionatu eta administratzeko eskuduntzarekin, kaxa autonomoaren printzipioari lotutako Gizarte Segurantzako Euskal Institutua exigitzen duen bitartean, "Toledoko Itunetik" ezarri nahi diren saiakera aldatzaileei erantzuna emango die LAB sindikatuak. Aldakuntza horren oinarria, murrizketa sozial handiagoak eta —finantza-kapitalari erabilera espekulatzaila ematearren— osagarritzko bide pribatuen bultzada daude.

*Negoziazio Kolektiboari sakoneko berrikuntza egin behar zaio, ekinbide sindikalaren esparru, edukin eta dinamikei dagokienean. Sindikalismoak jasaten dituen inertzia antzuei erantzun behar zaie ekinbide sindikalean jarduteko konpromezu garbiarekin eta egiaztapen honekin: negoziazio kolektiboa ezin izan daiteke indarrean dagoen erritualismoaren arabera; alderantziz, enpresarien eta Administrazioaren aurrean garaitzapenak gauzatu eta botere sindikalean aurrera egiteko izango dugun jarrera erabakiorraren tamainakoa baizik. Horrek behartzen gaitu geure burua egoki prestatzeko barnè-mekanika martxan jartzera eta, batez ere, borrokarako prest egotera.

EUSKAL GUNE SOZIO-EKONOMIKOA (EGSE)

*LABek alternatibazko estrategia sozio-ekonomikoa eraiki behar du. Dinamika autokokatuetan oinarritutako dinamikaren ardatz nagusia, egungo egoera honetan, barne-enplegua eta eskakizuna izango dira.

*Euskal sektore publikoa garatzeko eskuduntza legislatibo osoak eduki behar ditu EGSEk: garapen-ereduaren eragile, zerga-politikaren norabideak eta politika ekonomiko eta monetariaren ardatz nagusiak zuzentzeko gauza litzateke horrela.

*EGSEren funtsezko faktoreak dira hauek: industri enpresa publikoa bultzatzea, produkzio-ehuna garatu, dibertsifikatu eta koalfikatze lanabesa den aldetik eta, bidebategi, geure finantza-lanabesak garatzeko (Euskal Banku Publikoa).

*EGSE bestelakoa izango bada, ongizatearen egoera izenekoa errotik aldatu beharra dago.

*Politika sozial bat eratu ahal izateko, zergen biltze, kudeatze eta banatze alorretan lanabes zehatzak sortu behar dira, zerga-politika aurrerakoia gauzatu behar da, eta aberastasunen banakuntza-politika egokia jarri behar da praktikan.

*Herri edo eskualde mailako egiturek, behar dituzte produkziozko, enpleguzko eta merkataritzazko dinamika antolatu eta elkarlotu, garapen ekonomiko eta sozialaren mesedetan.

*Enpleguaren sorrerak politika ekonomikoaren norabide aldaketa eta gure produkzio-ehunaren garapen eta dibertsifikazioa agintzen digu.

*Enpleguaren banakuntzari dagokion ekimen sindikala, lan-harremanen aberastasun eta demokratizazioak bermatzen dute Euskal Langileria Mugimendua justiziazko eta elkartasuneko gizarte berriaren funtsezko sujetua izango dela.

*Herri kultura eta euskara, planteatzen ari garapen-eredua lotzeko elementu nagusi dira.

EBAZPENAK

*Euskal Gune Sozio-Ekonomikoa egituratu ahal izateko, kohesioa eta jarraipena emango dioten neurri ekonomikoak eta politika sozial eta laboralak martxan jarri ahal izateko eskuduntza legislatibo osoak eduki behar dira. Bestela esateko, langileria den gehiengo sozialaren errebindikazioei erantzun ahal izateko, Subirautza premia gorrikoa da gai sozio-ekonomikoetan. Beraz, gizartea antolatze eta lotzeko ezinbesteko faktoretzat agertzen da.

*Enplegua sortzea izango da LABen ekinbide sindikalaren lehentasunetako bat. Enplegua malgutasunarekin eta lehiakortasunarekin lotzen duten jokamolde neoliberalen kontra, euskal mugimendu sindikalak ahalginak batu behar ditu %25eko langabeziari aurre egiteko, ekimen industrialak izanik, lan-merkatuan bi-tartekaritza eramateko lanabes egokiak exigituta eta enplegu eta aberastasunaren banakuntza delako binomioaren inguruan, erabakiak hartuta.

Izaera orokorrez eta eskuramen-galerik izan gabe lan-jardunaldia murrizteak, beste neurri batzuen artean, datozen urteotako sindikalismoaren ekinbideak izan behar du ipar-izarra, garaitzapen hori ez dadin bihurtu alferrikako gertakari sinboliko, negoziazio kolektiboaren bitartez.

*Euskal Herriko egoera sozial eta ekonomikoari buruzko azterketa jorratuko duen URTEKO FOROA sortzea proposatu nahi die LABek eragile sozial eta ekonomikoari. Errealitate honetako zatikako edota koordinatu gabeko azterketak egin ez daitezten, egoera ekonomiko eta sozialaren PERSPEKTIBA NAZIOANALA izateko premia jasaten dugu Euskal Eraikuntza Nazionala bultzatzen dugun sektore ekonomiko, politiko, sindikal eta sozial guztiok.

EKINBIDE SINDIKALA GIZARTEAREN ALDAKUNTZA LORTZEKO

*Euskal Langileriaren Mugimenduak gaurregun dauzkan arazoei erantzuna eman ahal izateko, gure ekinbide sindikala gardena da izaeraz, gure ibilbide sindikalaren emaitza eta euskal langileengan eragina duen errealitate ekonomiko, politiko eta sozialaren azterketaren fruitu.

*Gure ekinbide sindikalak orain EGSE eta LHEG sortzearen alde jo behar du, testuinguru sozioekonomiko larriari planteamendu erreibindikatzailak kontrajarriz. Aberastasun eta lanaren banaketak tajutzen du gure Sindikatuaren funtsezko erreibindikazio-bidea, egoera sozio-ekonomikoari erantzutearren.

*Datozen urteotan egin nahi dugun lana, funtsez, hau da: bizi- eta lan-baldintzen errotiko aldakuntza ekarriko duen borroka eraginkor eta koordinatua garatzeko beharrezkoak diren lanabesak, Euskal Langileriaren Mugimenduko sektore guztiek LABen aurki ditzaten moduko proiektu sindikal bihurtzea LAB.

*LABeko egitura lokalak ekinbide sindikaleko osotasunezko maila hori trinkotu behar du, eremu honetan dauden arazoeierantzuna emateko, enpresa eta gizarterantz bultzatu beharreko ekimenak jorratuz eta bizkortuz.

*LABen ekinbide sindikalak Euskal Herriko enpresa guztien baitan ekimena eskuratu behar du ostera.

*Sekzio sindikal bakoitzak gauza izan behar du LABen ekinbide sindikaleko ildo administratzeko, lantegi bakoitzeko dinamika sindikala planifikatu eta zorrotzuz.

*Ekinbide sindikalaren ordezkarietazko antolamenduaren bitartez herrestan ekarritako delegazionismozko politika sindikatuan bertan deuseztatzea eskatzen du eta, trebakuntzan, antolamenduaren garapenean eta ekinbide sindikalaren tajueran, nor bere ardura har dezan agintzen du.

*Euskal gizarteak euskara berpiztuko badu, lan-mundua euskalduntzeko langileek eta sindikatuek berarizko ahalegina egin beharko dute.

*Armada espainol eta frantsesaren aurka intsumisio-jarrera erakutsiz euskal gazteek (langileak edota langileen semeak) daramaten borrokari sindikalismoak laguntza eman behar dio.

EBAZPENAK

*Justizia soziala lortzearen gizartea aldatzera iritsi nahi duen erakundea den aldetik, sindikatu soziopolitiko den aldetik, Euskal Nazioaren Eraikuntzan hitzemanik dagoen Ezker Abertzaleko erakundea den aldetik, LABek aldakuntza sozialaren aldeko eragiletzat kokatu nahi du bere burua. Langileriaren eragina duten neurri politiko, ekonomiko eta sozialetan eragiteko borrokan etengabe jardun dezagun eta, ondorioz, gaurregun jasaten ditugun zapalkuntza eta injustizi parametroak eraldatzeko alternatibak aurkeztera behartzen gaitu horrek guztiak.

*Hemen aurkezten dugun ekinbide sindikaleko eredu koherentzia teoriko-praktikoaz onetsi behar dute Sindikatuko militantzia eta koadroek, enpresetan eta gizartean orohar jarduteko Sindikatuak adierazi dituen helburuak lortuko badira, geure burua ezinbesteko sujetutzat hartuta. Militantziatzko lanak, planteamenduen koherentziak eta hauei ematen zaizkien erantzunek bakar-bakarrik, jorratuko digute bidea legitimitate-maila garaietara iristeko: hauei esker zabaldu ahal izango da gizarte osoarengan Sindikatuaren egin-kizuna, koantitatibo zein koalitatiboki.

*Kongresua amaitu eta handik hiru hilabetera gehienez ere heldu beharko dio Zuzendaritza Nazionalak Euskalduntze Planari (1996-2000), gure erakundearen barne-bizitza zeharo euskaraz egin ahal izan dezagun. Plan honi Konferentzia Nazional batean eman beharko litzaioke onespina, bere ondorio operatiboak xedatuz.

*Nazio-erakuntzarako proiektuan eta gizartearen aldakuntzan daukan ardura asumitzen du gure Sindikatuak, bai alor politikoan bai sozialean, euskal langileriaren erakunde sindikala izateak dakarren konpromezu eta guzti. Honek guztiak zehazten du gure eredu organizatiboa.

*Erakunde sozio-politikoak den aldetik, Sindikatu honek giltzarria eskaini behar digu, gure erakundeak gizartearen gero eta eskuhartze handiagoa eduki dezan, egungo eredu politikoaren ondoriozko arazo koiuntural eta estrategikoak jasaten dituen langileriaren ikuspuntutik.

*Bai lan-munduan, bai produkzio-sistematik kanpoko sektoreetan eta egoera politiko eta ekonomikoak zehaztutako elementu egituraletan, Herri honetako langileen bizi-baldintzak hobetzeko konpromezua hartu duen erakundeak, ezinbestez bultzatu behar du lurralde eta sektoreen ikuspegitik problematikei erantzuna emateko moduko egitura.

*Gure Sindikatuaren ordezkariaren eta produkzio-ahalmenaren bilakaera positiboa izan bada ere, gorkada honek ez du izan gizartearen eragin handiagoa izateko helburuz eraman ditugun eskuhartze-dinamika berrietan agerpen orekaturik.

*Militante sindikalak (liberatuak, egituretako kideak, delegatuak, e.a.) elementu teorikoa barneratu egin behar du, osotasunezko eskuhartze-profila praktikan jarritz, jarduera sindikala antzu edo eskas gera ez dadin. Nolanahi ere beharrezkoak diren espezializazioak eta berarizko lanak osotasunezko eskuhartzearen gehigarri gisa garatu behar dira, ikuspegi sozial, ekonomiko eta politikotik, LABen etorkizun estrategikoa garrantzatu duen militantzia eratzeko.

*Egoera berezi hau ezagututa, esparru horretako jarduerak eskaintzen dizkion maila sozio-ekonomiko eta politikoetan eta berarizko plangintza egin eta ekimenak bultzatzearen bidez, sindikatu-eraginaren garapen hedakorra indartu beharko du.

*Herrialdeko Idazkaritzetatik Zuzendaritza Nazionalera eta bertako organo konfederalera egin behar den ekarpena errotik, funtsez, aldatu beharra dago.

*LAB proiektu sindikalak eskatzen duen egitura sektorialak funtsezko bi ardatz hauek ditu euskarri: batetik, sektoreek egoera ekonomikoa ederki ezagutzeak Nazioa Eraikitze Proiektuaren aldeko eskuhartze eta diseinua aberasten duela eta, era berean, ikuspegi soziopolitikotik sektoreen egoeran eragina izateko gaitasuna. Beste aldetik, sektore eta lantegietan eskuhartzea sakondu ahal izatea, koordinazio eta hausnarketa-maila hobean, gizarte-esparru guztietan osotasunezko ekinbide sindikalak osaturiko ikuspegi eta problematika zehatzetatik.

*Batzorde Sektorialek, orohar, Sindikatuaren lan-profila asumituko dute alor politiko, sozial eta ekonomikoan eta, honen ondorioz, zuzendaritza-organon konfederalen txertatzea ere asumitu beharko dute.

*Eskuhartze sozialeko berarizko alor batzuk garatu behar dira (gazteria, emakumea, langabetuak, e.a.), herri eta eskualde mailako lurralde-egituretatik bultzatu beharreko ekinbide sindikalaren arabera.

*Sekzio Sindikala funtsezko lanabes organizatiboa da ekinbide sindikalean, bai antolakuntzari dagokionean (Sindikatuaren hedapenaren eta barne-partaidetzaren garapena, politika sindikala tajutzeko unean ekarpena egiteko, e.a.) bai, marko zehatzetan, sindikatuaren eskuhartzearen ikuspegitik ere.

*Delegatu Sindikala hartu behar da erreferentziatzeko ardatz bezala, Herriko Batzordeen osakera eta jarduerari dagokionean.

Helburu zehatzetako plangintzak egundoko balioa dauka, erakundeak orekaz eta xehetasunez jardungo baidu; era berean, oinarritzeko faktorea da eginkizunak eta ardurak ebaluatzeke unean ere.

*Gure erakundeak funtsezko erronka bat dauka gainean: militantzia osorik trebatzea, jaztea.

*Koadro berriak sortzeko gure politikan jarduera zuzen eta eraginkorra eragotz dezakeelarik, gure betebeharren garapenean ariera boluntaristari (kargu eta eginkizunen metaketa, e.a.) erantzuteko premia dugu. Era berean, gehienez ere, hiru kongresu jarraien iraunaldia finkatu behar zaio ardura exekutibo bera hartuko duenari, aukeratua gertatu ahal izateko.

